

Asisko gutuna

2017ko Otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

100. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

“Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi” dio laugarren printzipio honen goiburuak. Baina ondotxo dakigu elkarrekin bidea egite hori laguntza aparta eta ezinbestekoa dugun arren zenbaitzuetan aldapatsua egiten zaigula. Zenbaitetan bakardadeak tentatzen gaitu, bestea ezin jasanik.

Inoiz bururatu zaigu zenbat jasaten gaituen Jaunak?

Gogoetarako gaia

Bestea zama bihurtzen zaigunean

Elkarbizitzak lausotu egiten du bizi ditugun hainbat gauzaren distira. Badirudi elkartu gaituen maitasunaren indarra gutxitu egiten dela, senidetasunaren lehen indarrak behera doazela, hasieran betetzen gintuen adiskidetasuna, orain, aldapatsu gertatzen zaigula... Bestea zama bihurtzen zaigu. Agian ez da izan konpondu ezin edo frustrazio handirik, baina hasiera batean neketsu ez ziren gauzak, eta bestearengan zurrutuz eta eskuzabaltasunez onartzen zirenak, orain pisu handi gertatzen dira.

Zer egin? Berrero ere ahaleginak egingo al ditugu, geure boluntarismoari puska bat eraginez, edo bestela konformatu egingo al gara erdipurdiko bizikidetzaren batean, berorretan barru barruan amore ematen dugularik, harremanean dugun ilusio- eta gogo-faltaren errudun bestea eginez? Eta kexak alderdi objektiboak ditu: nire eta bestearen muga moral

eta psikologikoak, izaera ezberdinak, ohitura finkatuak...

Pausoak emanez joan beharko da, gure frustrazio txiki eta handiak hitzez adieraziz –kexa ez da ez-sanoa moralizatu gabe egiten bada–, elkarbizitza errazten duten medioak jarritz, partekaturiko erantzukizunak berregokituz... Hori dena eta gehiago egin beharko da. Ez gara aingeruak eta elkarbizitza bidezko eta orekatu batean lan egin behar da. Baina horrekin guztiarekin batera, beti bestearen zama neure egiten joan beharko dut egunez egun, bizitza arruntean.

Besteen zama hartze honek adierazten du, gure maitasuna ez dela emozioak ase-bila dabilen nerabe-idealizazio bat, baizik eta helduz doan bizitza baten fruitua, norbere buruaz ahaztuz eta bizitza betez. Eta hau izango da emaitza: norberarentzat eta bestearentzat bizi gehiago.

Bibliako pasarteak: Is 52,13-53,5

Nire zerbitzariak arrakasta lortuko du, goratua, gorengo mailan jarria izango da. asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzegoen itxuragabetua, giza antzik ere gabe, gizaki ez zirudiela... Mesprextatua zen, eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia. Ikusteak ere nazka ematen duen norbait bezalaxe, mesprextatu egin genuen, eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak hartu zituen bere gain, gure oinazeen zama jasan. Guk, berriz, Jainkoak zauritu zuela uste genuen, Jainkoak zigortu eta atsekabetu zuela. Baina gure errebeldeengatik zulatu zuten, gure erruengatik birrindu; berak jasan zuen guretzat salbagarri izango zen zigorra: haren zauriek sendatu gintuzten.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Eta anaien artean, dauden tokian daudela, norbaitek giza grinen arabera jokatu nahiko balu eta ez Espirituaren arabera, berarekin bizi diren anaiek ohartaraz, ikasaraz eta zentza bezate apalki eta maitekiro. Eta hiru aldiz ohartarazi ondoren zentzatu nahi ez badu, bidal diezaiote edo jakinarazi lehenbailehen bere ministro eta morroiari, eta ministro eta morroiak joka beza harekin Jainkoaren arabera gehien komeni dela irudituko zaion moduan.

Eta gorde bitez anaia guztiak, ministro eta morroiak nahiz besteak, anaiaren bekatua edo gaizki egina dela-eta asalatu edo haserretzetik, bat bakarraren hobenez asko hondatu nahi baititu deabruak; baizik eta bekatu egin duenari lagun diezaiote espiritualki, ahal duten ongien, ez baitute *osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik*”.

Elkarbizitzan ikasten dugu benetako maitasuna, elkar ahal dugun ongien onartuz eta lagunduz. Eta Jesusen hitz hauetan oinarritzen gara, “ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik”; eta Hura bidelagun dugula, gure gogoia da esker onak leku eta indar gehiago edukitzea geure harremanetan, kexak baino.

Otoitza

Denok anai-arreba sentituko bagina.
(Izan ere gizaki baten odola, ez al da berdina beste odol batekin?)
Geure arima irekiko balitz. (Ez al da berdina beste arimekin?)
Apalak bagina. (Gauzen pisuak ez al du giza garaiera berdintzen?)
Maitasunak bizkarrez bizkar jarriko bagintu, nekez neke eta malkoz malko.
Bat egingo bagenu.
Batzuk besteekin.
Batzuk besteen ondoan.

Suaren eta elurraren gainetik,
are urrea eta ezpata baino haratago.
Pitzadurarik gabeko blokea egingo bagenu taupadaka ari zaizkigun zazpi mila milioi bihotz gorriekin.
Oinak geure lurrean sartuko bagenitu, eta begiak irekiko, bekokia baretuz, eta ukabilez eta bizkarrez gogor bultzatuko bagenu, zein arkitektura ederra altxatuko litzatekeen buztinetik.

Angela Figuera Aymerich

Gutuneko azken hitzak

“Maitatzea ez da soilik nahi izatea, baizik –eta batez ere-, ulertzea.”. (Françoise Sagan)

2017ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate otsaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 6, 1-6	7 Mk 7, 1-13	12 Mt 5,20-22-27-	17 Mk 8, 34-9,1	23 Mk 9, 41-50
2 Lk 2,22-32	8 Mk 7, 14-23	28.33-37	18 Mk 9, 2-13	24 Mk 10,1-12
3.Mk 6, 14-29	9 Mk 7, 24-30	13 Mk 8, 11-13	19 Mt 5, 38-48	25 Mk 10, 13-16
4 Mk 6, 30-34	10 Mk 7,31-37	14 Lk 10, 1-9	20 Mk 9, 14-29	26 Mt 56, 24-34
5 Mt 5,13-16	11 Mk 8, 1-10	15 Mk 8, 22-26	21 Mk 9, 30-37	27 Mk 10, 17-27
6 Mk 6, 53-56		16 Mk 8,27-33	22 Mt 16,13-19	28 Mk 10, 28-31

Asisko Frantzisko eta Klara bizi izan ziren lekuak gogoeta eta otoitz eginez ezagutzea eskaintzen dizugu.

Bilaketa, atsedena... edo beste era bateko nekea bizitzeko aukera izan dezakezu.

ASISERA GOAZ 2017ko UZTAILAREN 1etik 8ra.

Interesa baduzu, esaguzu: 615-785328 pastoralfranciscanos@yahoo.es

Otsailean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 23an izango da 19:30tan

Asis Sarearen 100. Alea dela eta senide elkarteari esker ona

Zeinen erraz ohitzen garen onera. Berria, ona, gustagarri eta atsegina bada, denborak aurrera egin ahala ohiko eta arrunt bilakatzen zaigu, betikoa bailitzan eta horrela behar duelakoan. Hasieran txunditu gintuen horretara ohitzeko ohitura dugu, eta ohiko bezala bizi dugu; are gehiago, horrela behar duelakoan.

Interesgarria da, noizik eta behin, gure bizitzako ohikoei begirada bat luzatzea beraien balioaz jabetzeko: gauzak, harremanak, lekuak, aldiak, pertsonak... Konturatu gabe hasiera hartan izan zuten distira galtzen joan dira eta gure begirada ohitu egin da beraien presentziara. Errepaso hau egitean berriro beti izan duten –baina gure begiradapean galtzen joan diren- garrantzia berreskuratzen dute. Arazoa ez da duten balioa baizik gure begirada.

Bizitzako ibilbidean bidelagun ditugun pertsona guztiak gure bizi-ikusmoldearen zati ditugu. Batzuk, sarri ikustearen poderioz ia ikusezin bihurtuak; besteak, nahiz ikuspegitik kanpo egon, oso presente aurkitzen direnak. Zeinen zoragarria den beraien presentzia sumatzea gure bizitzetan eta beraien esanguratasunaz ohartzea: batzuk beraien presentzia hutsez, beste batzuk beraien zerbitzuagatik, besteak beraien hitzagatik, edo maitasunagatik... Bakoitza bere erara niretzako esanguratsua izaten ari da. Kontua ez da gehiago edo gutxiago sentitzea, baizik ohartzea eta eskertzea. Eskerrik asko emazte, lagun, kide, auzotar, maistra, ezagun... zarena zarela... nirekin izateagatik.

Asis Sarearen urte hauetan, asko dira bidea egiten ari diren senideak. Nahiz ez eza-gutu, badakigu bidean garela. Eskerrik asko anaia, neba, arreba, ahizpa. Eta eskerrik asko Jainkoari elkarteko bizitza honetan senidetasunezko bizitzara deitzen gaituelako, eta Berekin bizia izatera.